



EPELeke BINAKAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2006

❖ **TXAPELKETA SISTEMA**

Txapelketak ondorengo faseak izango ditu:

- Final-zortzirenetako ligaxka.
- Final-laurdenak.
- Finalerdiak.
- Finala.

➤ **FINAL-ZORTZIRENETAKO LIGAXKA**

□ **JARDUNALDIAK:**

Ligaxkak lau jardunaldi izango ditu talde bakoitzeko (A eta B). Jardunaldi hoietan bikote bakoitzak beste taldea osotzen duten bikote guztien aurka jokatu beharko du.

Jardunaldiak 2006ko urtarrilaren 8ko, 15eko, 22ko eta 29ko asteetan ospatuko dira.

□ **SAILKAPENA:**

Ligaxkaren sailkapena egiteko, bikote bakoitzak puntu bat lortuko du irabazitako partida bakoitzeko.

Lau partiden ondoren bikote bakoitzak lortutako puntuak ikusiko da, eta ondoren ligaxkako sailkapena burutuko da talde bakoitzeko (A eta B).

Puntuak batuta berdinketa suertatuko balitz, ondorengo kriterioak kontuan hartuko dira koerlatiboki:

- Lehen kriterioa:

Final-zortzirenetako ligaxkan jokatutako partida guztietan lortutako tantuen koefizientea (koefizientea = aldekoak – kontrakoak).

- Bigarren kriterioa:

Berdinketa oraindik suertatuko balitz, final-zortzirenetako ligaxkan galdutako partida guztien artean izandako tanteadorerik baxuena kontuan hartuko da, eta gutxieneko tanteo hori altuen daukan bikotea sailkatuko da hurrengo faserako. Hala ere, oraindik berdinketa suertatuko balitz galdutako partida guztien artean bigarren tanteadorerik baxuena kontuan hartuko da; horrela jarraituz berdinketa bukatu arte.



BINAKAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2005

Hala ere, berdinketa hori partida bat ere galdu ez duten bikoteen artean suertatuko balitz, irabazitako partida guzti hoietan diferentziarik handiena lortu duen bikotea sailkatuko da. Berdinketa mantendu ezkerro, bigarrenengo diferentziarik handiena lortu duen bikotea sailkatuko da, horrela jarraituz berdinketa ezabatu arte.

- Hirugarren kriterioa:

Aurreko kriterioak aplikatuta berdinketa mantenduko balitz zozketaz erabakiko da.

□ **ORDEZKAPENAK:**

Pilotari batek ezin badu partida bat jokatu, bere lekua pilotari horren enpresak izendatzen duen beste pilotari batek okupatuko du; kontuan izanda, hala ere, bikote batekin ordezeko moduan jokatu duen pilotari batek ezin izango duela berriro ere ordezeko moduan jokatu beste bikote ezberdin batekin fase honetan zehar.

Ligaxka honetan zehar bikote berarekin ordezeko moduan hiru edo lau partida jokatzen dituen pilotariak, eta hoietatik gutxienez hiru partida irabazten baditu ondorengo faseerako sailkatuz, bikote horretako pilotari titularra bihurtuko da; nahiz eta hasieratik titular gisa izendatuta zegoen pilotaria hurrengo fasean parte hartzeko prest egon.

➤ **FINAL-LAURDENAK**

□ **JARDUNALDIAK:**

Ondorengo lau partidetak bi jardunaldi.

- A taldeko lehena - B taldeko laugarrena = 1. kanporaketa
- A taldeko bigarrena - B taldeko hirugarrena = 2. kanporaketa
- B taldeko bigarrena - A taldeko hirugarrena = 3. kanporaketa
- B taldeko lehena - A taldeko laugarrena = 4. kanporaketa

Jardunaldiak 2006ko otsailaren 5eko eta 12ko asteetan ospatuko dira. Berdinketa suertatuko balitz –hau da, bikote bakoitzak partida bat irabaziko balu- beste partida berri bat jokatuko da 2006ko otsailaren 19ko astean.

□ **SAILKAPEN SISTEMA:**

Hiru partidetara eliminatoria. Bikote berak irabaziko balu lehen eta bigarren partida ez litzateke hirugarren partida ospatu beharko.

□ **ORDEZKAPENAK:**



BINAKAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2005

Pilotari batek ezin badu partida bat jokatu, bere lekua pilotari horren enpresak izendatzen duen beste pilotari batek okupatuko du, baina beti ere ondorengo kontuan izanda:

- Beste faseetan zehar (final-zortzirenetako ligaxka eta final-laurdenak), titular izaera lortu duten pilotariak ezin dute orain berriro ere ordezeko moduan jokatu.
- Final-laurdenetan beste bikote batekin ordezeko moduan jokatu duen pilotariak ezin izango du berriro ere ordezeko moduan jokatu.

Ordezko moduan bikote berarekin final-laurdenetako fase honetan zehar bi partida jokatzen duen pilotariak bi partida hoiak irabazten baditu, ondorengo faserako sailkatuz, bikote horretako pilotari titularra bihurtuko da; nahiz eta hasieratik titular gisa izendatua zegoen pilotaria hurrengo fasean parte hartzeko prest egon.

➤ **FINALERDIAK**

□ **JARDUNALDIAK:**

Bi partida izango dituzten bi jardunaldietan ospatuko da.

- Final laurdenetako 1. eta 2. kanporaketa moduan izendatutakoak irabazten dutenen bikoteen artean.
- Final laurdenetako 3. eta 4. kanporaketa moduan izendatutakoak irabazten dutenen bikoteen artean.

Fase hau final-laurdenetako fasea bukatzen den ondorengo astean buruko da. Hau da:

- Final-laurdenetan desentzateko partidarik jokatu beharko ez balitz, finalerdietako jardunaldiak 2006ko otsailaren 19ko eta 26ko asteetan ospatuko dira.
- Final-laurdenetako fasean desentzateko partidaren bat jokatu beharko balitz, finalerdiak 2006ko otsailaren 26ko eta martxoaren 5eko asteetan ospatuko dira.

Finalerdietako fasean bikote bakoitzak partida bat irabazten badu, desentzateko partida 2006ko martxoaren 5eko astean ospatuko da (final laurdenetan desentzateko partidarik izango ez balitz) edo martxoaren 12ko astean (final laurdenetako fasean desentzate partidarik egoten bada).

□ **SAILKAPEN SISTEMA:**

Hiru partidetatik hoberenera eliminatoria. Bikote berak lehenengo eta bigarren jardunaldietako partidak irabazten baditu ez da hirugarren partida bat jokatu beharko.

□ **ORDEZKAPENAK:**

Pilotari batek ezin badu partida bat jokatu, bere lekua pilotari horren enpresak izendatzen duen beste pilotari batek okupatuko du, baina beti ere ondorengo kontuan izanda:



BINAKAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2005

- Beste faseetan zehar (final-zortzietako ligaxka, final-laurdenak eta finalerdiak) titular izaera lortu duten pilotariak ezingo dute orain berriro ere ordezeko moduan jokatu.
- Finalerdietan beste bikote batekin ordezeko moduan jokatu duen pilotariak ezin izango du berriro ere ordezeko moduan jokatu.

Ordezko moduan bikote berarekin finalerdietako fase honetan zehar bi partida jokatzen dituen pilotariak, eta bi partida hoiek irabazten baditu ondorengo faserako sailkatuz, bikote horretako pilotari titularra bihurtuko da; nahiz eta hasieran titular gisa izendatua zegoen pilotaria hurrengo fasean parte hartzeko prest egon.

➤ **FINALA**

Finala finalerdiak irabazten dituzten bikoteek jokatuko dute.

Finala partida bakarrera jokatuko da finalerdiak ospatu eta 2 aste beranduago. Hau da, final-laurdenetako edo finalerdietako faseetan desenpateko partidarik jokatu diren edo ez ikusita, finala hiru data hauetako batean ospatuko da: 2006ko martxoaren 12an, martxoaren 19an edo martxoaren 26an.

Ordezkapenei dagokienez finalerdietarako azaldutakoa kontuan izango da.

❖ **TXAPELKETAREN ARAUAK**

□ **ORDEZKAPENAK ETA PILOTARIEN BERRAGERPENAK:**

Bai ordezkoen kasuan, edo baja hartuta egon eta gero hasieratik dagokion bikotearekin berragertu nahi duten pilotarien inkorporazioak EPELeko Epaille Bakarrak horrela erabakitzen duen unetik baino ez dute efekturik izango; edozein enpresak txapelketan parte hartzeko egindako proposamenak berez inolako baliorik izan gabe.

a) Ordezkapenak:

Pilotari batek, bikote baten ordezeko edo titularra, txapelketa utzi behar badu, EPELeko Epaille Bakarrari abisatu beharko zaio uzte hori bultzatzen duten arazoak jakiten diren momentuan bertan.

Horretarako, pilotari horretako enpresak Epaille Bakarrari bidali beharko dio "ordezkapenetarako formularioa". Eskaera hori bere osasunarekin erlazionatzen diren kontuekin lotzen bada, enpresako medikuak egindako txosten medikua aurkeztu beharko da gainera.

EPELera bidalitako "ordezkapenetarako formulario" horretan agertu behar da ere, ordezkapenetarako arautegia zainduz, baja hori betetzeko enpresak izendatzen duen pilotariaren izena. Ondoren, EPELeko Epaille Bakarrak arautegian azaldutakoaren arabera ordezkapen hori balioztatuko du, arautegiarekin bat etorri ezker.

b) Berragerpenak:



BINAKAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2005

Baja hartu duen pilotari baten enpresak pilotari hau berriro ere jokura batzeko egoeran dagoela ulertzen duenean, EPELeke Epaile Bakarrari bidali beharko dio dagokion “berragerpen formularioa”. Ondoren, EPELeke Epaile Bakarrak arautegian azaldutakoaren arabera, berragerpen eskaera hori balioztatuko du, arautegiarekin bat etorri ezkeru.

c) Ordezko pilotarien iraupena bikote baten:

Ordezko izan den pilotaria bikote baten arituko da ondorengo egoeretatik baten bat eman arte:

- Pilotari horrek txapelketa utzi behar izatea, eta kasu horretan ordezkapenatarako azaldutako arautegiarekin bat jokatu beharko da.
- Epaile Bakarrak hasierako pilotari titularraren berragerpena balioztatzea pilotari bien enpresak egindako eskaeraren ondoren (ordezkoa eta titularra).

□ ATSEDENALDIAK:

a) Epaile kontrolatzailea:

Kontrola, pilotari, epaile eta ikusleekin komunikatze lana, eta partidetan zehar ematen diren atsedenaldiekin lotuta dagoen zigortze gaitasuna baita, epaile kontrolatzaileak beteko du.

b) Atsedenaldien eskaera:

Atsedentaldia bikote edo teknikariek/botileroak eskatu beharko dute, eta epaileari argi adierazi beharko diote.

Bikote edo teknikari/botilero biek atsedentaldia batera eskatu ezkeru, atsedentaldi hau azken tantua galdu duen bikoteari zenbatuko zaio.

Ezin izango da atsedentaldia eskatu azken tantua zuzenean sakez lortu izan denean.

c) Atsedenaldien denbora eta kopurua:

Bikote bakoitzak gehienez 2 minututako 4 atsedentaldi eskatu ahal izango ditu partidari zehar.

Partida 21 tantutara berdindurik egon ezkeru, eta bikote biek beraien atsedentaldi guztiak agortu izan badituzte, epaile nagusiak neurri bereko atsedentaldi berri bat eman dezake.

Atsedenaldiaren denbora tantua bukatzen den unetik zenbatzen hasiko da, bikoteak zein momentuan eskatzen duen kontuan izan gabe.

Atsedenaldiaren bitartean pilotariak eta teknikariak/botileroak atsedentaldiatarako prestatutako setan egon beharko dira.

d) Atsedenaldien seinalizazioa:



BINAKAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2005

Epaile kontrolatzaileak pilotari eta ikuslei atsedenaldiak adieraziko dizkie ondorengo arauei jarraituz:

1. Atsedenaldiaren zenbakia eta eskatzen duen bikotea:

Atsedenaldia eskatu duen pilotariari dagokion kartoi-mehe gorri edo urdina erakutsiko du.

Kartoi-mehe honek, gorria edo urdina, zenbaki bat eramango du idatzita; zenbaki honek atsedenaldia zein den adieraziko du.

2. Atsedenaldiaren amaiera:

Atsedenaldia bukatzeko 20 segundu faltatzen direnean, kolore orlegiko kartoi-mehea erakutsiko du, eta pilotariak kantxara abiatu beharko dira momentu horretan bertan.

e) Kantxa uztea:

Pilotari batek ezin du kantxa utzi epaile kontrolatzailearen baimena izan gabe. Honek baimena ematen badio kantxatik kanpo lagunduko dio.

Pilotariak aldageletara joan ahal izateko baldintzak ondokoak dira:

- Laguntza medikuaren beharra.
- Komunera joateko premiazko beharra izatea.
- Kirol janzkeraren aldaketaren beharra, eskuen babesaren honen baitan ez dala kontsideratzen.

Aldageletara sartzea, arrazoia edozein izanda ere, atsedenaldi moduan kontuan hartuko da, eta benetan premiazkoa den uneraino luzatuko da bakarrik.

f) Atsedenaldien ez betetzea:

Pilotari batek, kartoi-mehe orlegia alztatua izan eta gero, kantxara habiatzen ez bada, kartoi-mehe zuria erakutsiko zaio; eta hau ohar moduan kontsideratuko da.

Epaile kontrolatzaileak kartoi-mehe beltza erakutsiko dio pilotari bati ondorengo kasuetan:

- Kartoi-mehe zuria erakutsi ondoren jaramonik egiten ez badu.
- Aldageletan izandako sartzeko horrek justifikaziorik ez daukanean.
- Atsedenaldirik eskatu gabe, epaile kontrolatzaileak pilotari batek jokua etentzeko jarrera agertzen duela ulertzen duenean.

Kartoi-mehe beltzen ezarketa partidaren aktan adieraziko da.

□ KONTROL ANTIDOPINAK:



BINAKAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA 2005

Txapelketan zehar kontrol antidopinak ezarri ahal izango dira. Kontrol hauek EPELeke Antidoping Arautegiaren arabera ezarriko dira.

□ **TXAPELKETATIK BAZTERTZEA:**

EPELeke uste izango balu pilotari batek txapelketan parte hartzen jarraitzeko baldintza fisiko egokietan ez dagoela, Kirol Batzordeari eta pilotariari berari entzun eta gero, EPELeke Epaile Bakarrak pilotari hori txapelketatik kendu ahal izango du arrazoibidez.

□ **ISTILUEN EBAZPENEA ETA ARAUDIAREN INTERPRETAZIOA:**

Araudi honen inguruan, edo araudiak aurreikusten ez duen edozein kasuen inguruan, sor daitezkeen eztabaidak konpontzea EPELeke Txapelketako Epaile bakarrari dagokio, eta bere iritzia apelaezina izango da.